

TXINKORTA ESKOLA AMARA BERRI SISTEMARA EGOKITZEN

Bidegoiango Txinkorta eskolan, 2006-2007 ikasturtean, eskolaren egoera birplanteatzeko beharra ikusi zuten.

Taldearen lana bultzatuz ikastetxearen lerro metodologikoa markatu nahi zuten, baina testu liburua ez zuten ikusten funtzionamendu oinarri bezala. Amara Berri eta Antzuolako eskolen erreferentziak zeuzkaten, eta biekin zetozen bat. Dena dela, eztabaidatu ondoren, Amara Berri sistemaren alde egin zuten.

Amara Berri sistema orain dela 25 urte sortu zen eta Txinkorta eskolan 2006-2007 ikasturtean ezarri zen. Sareko eskola txikiena izanik erronka interesgarritzat jo zuten. Sistema hau, noski, bere eskolaren ezaugarrietara egokitu behar izan zuten.

Amara Berri sistema testuinguru egonkor eta osagarrietan antolatuta dago. Gainera, ekintza biziak bultzatzen dira eta ikasleen autonomia eta erritmo desberdinak onartzen dira. Bestalde, programak zikloka antolatzen dira eta ekintza guztiak funtzio sozial bat dute. Denen artean bideratzen da proiektu bat. Hedabideen garrantzia ere handia da eta beste gauzen artean, gaitasun teknologikoa lantzen da.

2007-2008 ikasturtean, H. H eta L.Hko 1. zikloa jarri zuten martxan.

2008-2009 ikasturtean, aldiz, LHko 2. zikloa jarriko dute martxan.

Beraien asmoa, 3 edo 4 urteren buruan maila guztietan sistema ezartzea izango da.

